



Ermita Saturdi y Txindoki.

Foto: Antxon Iturriza.

# Ihesaldiko pentsamenduak

ALEJANDRO TETUAN

**B**AKOITZAK ahal duen askatasuna bilatzen du. Sarritan esaldi honekin bukatzen ditu bere artikulak hain ezaguna zaigun Luis Pedro Peña Santiagok, eta han goian kontziente ala inkontzienteki mendizaleok bilatu eta aurkitzen dugun gauzetako bat horixe baita: askatasuna. Hain zuzen, horregatik uste dut, agian, beste pertsonak baino gehiago sufritu dezakegula gure askatasuna kentzen digutenean, eta tranpetan erorritako animaliak bezala aurkitzen garenean gertatzen denaren susmorik ere ulertu gabe.

Ez dut ezer ikusten, ez dakit nagoen, ezta zein egun den ere, kriston hotza egiten du eta darkarka nabil, oraindik burua bustia daukat, ez dut ulertzen zer gertatzen den, milaka pentsamendu nahasten dira nire burmuinean eta etsipenarik sakonean murgiltzen naute, hainbestekoa non amets txar hau amaitzeko heriotza desiratzten bait dut, baina hemen segitzen dut eta pentsatzen gainera, hori baita txarrena, zeren edozein momentutan entzun bait

daitezke oinatzak berriro, gelako sarraila irekiko dela abisatzen digutenak, besteren bat eramateko, beranduago negarrez ekartzeko, imajinatzen dut han giltzaperaturik dauden beste pertsonak oinatz horiek entzutean sentitu behar duten estutasuna, guztion estutasuna, guztion gogoia den bezalaxe irekitzen den sarraila gure gelakoa ez izatea.

Ezin dut gehiago, nire pentsamenduak ahaztu behar ditut erotu baino lehen, zeozer lasaitzen saiatzen naiz eta nire burutik pelikulak bailira oroitzen pasatzen hasten dira. Nire familia ikusten dut, andregaia, lagunak, nire mendiak, «kontzentratu zaitez» esaten diot neure buruari eta Txominekin Larraitzen aurkitzen naiz, goiz da eta eguraldi ona dago, begiak gogor estutzen ditut hobeto kontzentratzeko, piskanaka igotzen ari gara. Lehenengo ordu erdia da txarrena, mendiko beste isurialdea hasten den lekuraino heltzen gara, hegoaizearen zamarradak gure aurpegiak lantzantzen ditu duela gutxi agertutako

Auzagatzelu begiratzen dugun bitartean, bidea uzten dugu eta aldapa gogorretatik Txindokiko ertzaren oinarrira hurbiltzen gara. Txantxetan ari gara lehenengo aldiz egindakoa urrutitik nola hunkitu gintuen gogoratuz, enkordatzen gara eta igotzen hasi: lehenengo diedroa, bigarren diedroa, tximinia, plaka polita, frontoia begiratzen dugu. Hirugarren diedroa, badago, soka gordetzen dugu bele batzu gure buru gainetik jolasten ari diren bitartean, gailurra hortxe dago, ze ondo gauden hemen goian, «¿baina zergatik ari zara negarrez?» galdetzen diot neure buruari malkoak masailetatik korritzen sentitzen ditudanean.

Ihesaldiko pentsamenduak gela ilun batetatik.

Egun batzu beranduago, txokora bueltatzen nintzelarik ametsgaizto hau amaitu ta gero, Ordiziatik pasatzean goizaldeko orduetan sirimiria zeriola, begirada bota nuen hara goruntz, eta nahiz ta ezer ez ikusi, nik bai ikusten nuen. Malko berriak pasatu ziren nire masailetatik, baina hauek arrazoi guztiz desberdinagatik.